

ZUZENEKO LANGILEAK **EUSKARA PLANETAN:**

**euskararen normalizaziorako
funtsezko partaideak**

Hiznet graduondokorako egindako sakontze egitasmoa
Igone Bastarrika Salegi

2003ko irailaren 30ean



1-SARRERA. “Zuzeneko langileak euskara planetan”..... 1

2-NONDIK ABIATZEN GAREN. COPRECI..... 2

- 2.1- Copreciren ezaugarriak
- 2.2- Copreciko euskara plana
- 2.3- Coprecin zuzeneko langileekin egin izan dena
- 2.4- Copreciko zuzeneko langileen jarrerak

3-HIZKUNTZA PLANGINTZEN OINARRI TEORIKOAK (TXEPETX)..... 7

- Ezagutza, erabilera eta motibazioa
- Hizkuntza komunitatearen trinkotzea

4-ZUL-EKIN LAN EGITEKO TRESNA ETA METODOLOGIAK. (EMUN)..... 10

- 4.1- ZULeko lan egiteko erabili daitezkeen tresna eta metodologia edo tekniken sailkapena
- 4.2- GOIZPER-eko plana. Zuzeneko langileekin lan egin duten euskara plan bat
- 4.3- Copreciko zuzeneko langileekin lan egiteko proposamena

5- BIBLIOGRAFIA..... 23

1.-SARRERA.

Hiznet 02-03 ikastaroaren sakontze egitasmoa egiteko aukeratu dudana gaia enpresetako hizkuntz normalkuntza planekin lotuta dago, hauxe baita ikastaroan ikusi ditugun ikasgai eta plangintza mota ezberdin guztien artean, gehien interesatzen zaidan lan arloa.

Emunen enpresa planetako teknikari lanetan aritzen naizenez, Hiznet ikastarorako egin beharreko lan hau, nire lanerako erabilgarri egin nahi izan dut eta horregatik aukeratu dut “Zuzeneko langileak enpresa planetan” gaia.

Copreci enpresako bi negoziotako euskara planaren diseinua egin genuen Hiznet ikastaro honetako ikasgaiak lantzen aritu ginen hilabeteetan. Euskara planaren diseinuan enpresa bere osotasunean aztertu genuen eta negozioetako langile guztien ezaugarriak jaso genituen, ezagutza maila, lan gune bakoitzeko erabilera ohiturak, jarrerak... Baina helburuak ipini eta inplementatzeko orduan zailtasun handiak izan genituen zuzeneko langileekin lan egiteko moduak bilatu nahian. Negozio hauen diseinuak egiten hasi baino lehenago ere zailtasunak egon izan dira beti zuzenekoekin lan egiteko orduan.

Zuzeneko langileen aldetik inoiz entzun izan dut *“guk zer egin dezakegu ba? Ez dugu idazten, ez dugu bilerarik egiten, hori bulegoetan daudenen kontua da...”*. Baina jarrera honen arrazoiak beraiek ikusi/bizi izan dutena da. Guri ere, idatzizko helburuak ipintzerakoan, burura etortzen zaizkidan lehenengo ekintzak bulegoko dokumentazioan oinarritzen dira besteak beste. Idatzizko komunikazioa ere ordenagailuan lan egiten dutenekin landu ohi dugu, emailak... Ahozkoa lantzeko ahaleginak ere bilerak euskalduntzen egiten ditugu. Baina zer egiten dugu fabrikazioan dauden zuzeneko langileekin? Ba errotuluak euskaratu, euskara eskoletako matrikulazio garaian kanpainatxoak egin... askoz gehiago ez. Hau da behintzat Copreciko euskara planean nik nabaritu izan dudana.

Gai hau lantzeko aukerak aztertzen hasi nintzenean hiru bide ezberdin irudikatu nituen:

- 1- Zenbait enpresatako euskara planetan zuzeneko langileekin lan egiteko erabili diren metodologia eta teknikak bildu, aztertu, eta sailkatu eta gida erabilgarri bat osatu.
- 2- Zuzeneko langileekin lan egin duten eta interesgarriak diren 2 enpresatako metodologiak aztertu eta Coprecirako metodologiaren proposamena egin.
- 3- Parte hartze tekniken teoriak aztertu eta kasu praktiko bezala Copreciko negozio edo produkzio gune konkretu batean aplikatu.

Lanean hasi bezain laster hirugarren aukera baztertu egin nuen. Alde batetik, ez nuen parte hartze teknika egokirik aurkitzen nik egin nahi nuen horretarako. Bestalde, plana inplementatzen ari nintzen negozioetako zuzeneko langileekin ezin izango nuen probarik egin lan hau bukatzeko epeen barruan, planaren diseinuko faseak ezarrita baitzeuden ordurako.

Lehenengo aukerari heldu nion, euskara planak indarrean dauden zenbait enpresatako materiala begiratu, teknikariekin egon eta teknika batzuen zerrenda egin nuen. Gero, teknika hauek ezagutzarako, motibaziorako edota erabilerarako diren adierazi eta bakoitzari bere azalpen taula egin diot. Bigarren aukera ere interesgarria iruditu zitzaidan eta Antzuolako Goizper enpresako teknikariarekin elkartu nintzen hango planaren eta zuzeneko langileen parte hartze arrakastatsuen inguruan galde egiteko. Bi bide hauetatik barrena ibili naiz eta lana amaitzeko Copreciko zuzeneko langileekin lan egiteko proposamen bat egiten ausartu naiz.

Lanean zehar Txepetxen ezagutza/erabilera/motibazioa eta hizkuntza komunitatearen trinkotzearen teoriak sartu ditut, beti ere hauek Copreciko euskara planarekin lotuz.

2.- NONDIK ABIATZEN GAREN. COPRECI.


2.1 Copreci

Copreci 1963an sortu zen, eta hasieratik etxetresna elektrikoetarako osagaiak egin eta hornitu ditu. MCCko lehen kooperatiba izan zen atzerrian lantegiak ezartzen 1989. urtean. Gaur egun, Coprecik Aretxabaletako planta nagusiaz gain, Mexiko, Txekiar errepublika eta Estatu Batuetan dituen sozietate partaidetuetako gestioak integratzen ditu. Copreci munduko liderra da egosketako eta berogailuetako osagaiak egiten eta toki garrantzitsua du Europan garbigailuen eta mikrouhin labeen osagaietan.

Copreci bost negozio unitatek osatzen dute eta guztira 739 bazkide ditu.

- Egosketa elektrikoa: sukaldeetarako termostato elektrikoak, termostato elektronikoak eta sukaldeetarako produktu elektrikoak egiten ditu.
- Garbigailuen osagaiak: garbigailuetarako termostato elektrikoak, termostato elektronikoak, elektroponpak, programagailuak, presostatoak, abiadura erreguladoreak eta kontrol elektronikoak egiten ditu.
- Gas egosketa: sukalde, entzimera eta labeetarako gas iturriak, balbulak eta termostatoak egiten ditu.
- Etxe Konforta: berogailuen balbulak egiten ditu.
- Mikrouhinak: mikrouhin labeetarako transformadoreak egiten ditu.

739 bazkide hauen euskararen ezagutza maila ondorengo grafikoan adierazten da.



2.2 Copreciko euskara plana.

1999an: Euskara planaren aurreazterketa egin zen eta 3 urterako diseinu txostena aurkeztu ondoren, euskara planaren implementazioa hasi zen. Plana sail funtzionaletan eta negozio bakar batean implementatu zen, Egosketan.

2002ko urtarrila: Euskara Batzordeak mintegi bat egin zuen eta euskara planaren misioa adostu zuen. “Coprecin euskara lan hizkuntza bihurtu, ekintza plan ireki, integratzaile eta motibatzaile baten bidez.”. Mintegiaren ondoren euskara plana implementatzen ari zen departamentuen egoeraren diagnostiko bat egin zen.

2002ko uztaila: Euskara Batzordeak bigarren mintegi bat egin zuen bigarren plangintzaldiari begira hartu beharreko erabakiak adosteko. Mintegi honetan aurrera begira landu beharreko arloak adostu ziren.

2002ko abendua: Euskara Batzordeak “Ekintza plana 2003-2005” txostena aurkeztu zion Kontseilu Errektoreari eta Zuzendaritza Batzordean adostu ondoren, ondorengo 3 urtetarako ekintza plana onartu zen. Copreciko departamentu eta negozio guztiak euskara planean sartzea erabaki zen.

2003ko urtarril-maiatza: Garbiketa, Etxe Konforta eta Termostato Elektrikoa negozioetako diseinuak egin ziren eta negozio berrien implementazioa hasi zen.

Gaur egun Copreci Aretxabaleta planta osoan dago euskara plana. Euskara Batzordea da euskara planaren motorra eta Euskara Batzordeko kide bakoitzak planeko ekintza plana osatzen duten arloren baten ardura du. Euskara Batzordetik kanpo lan arlo hauek lantzeko lan talde txoak egiten dira eta lan talde txo hauetan batzordekide bat, teknikari bat eta beste langile batek edo bik parte hartzen dute. Lan arloak, komunikazioa, motibazioa, informatika, idatzizkoa, ahozkoa, formazioa eta ekonomia dira. Euskara Batzordeko gidari lanak egiteko koordinatzaile bat dago.

Bi hilabete behin negozio bakoitzeko zuzendariari negozioan lantzen ari denaren eta lantzeko dagoenaren deskargutxoak egiteko bilera egiten da eta lau hilabete behin Copreci Aretxabaleta plantako zuzendariari eta gerenteari euskara planaren martxa orokorraren deskargua egiten zaie.

2003. urte honetan Copreciko negozio berriak sartu dira euskara planean ondorioz, Copreci guztian du eragina euskara planak. Negozio berri hauetako zeharkako langileekin erabilera taldeak jarri dira martxan eta lehenengo urte honetan errotulazioa, dokumentazioa eta ahozko harreman informalak euskaratzeko helburua dugu.

Formazioari dagokionez Coprecin urtean 2 edo 3 alfabetatze ikastaro antolatzen dira eta parte hartzea positiboa izaten da. Orain arte alfabetatze ikastaro hauetan parte hartu duten langile guztiak zeharkako lanpostuetakoak dira. Euskara eskoletan 22 langile matrikulatu ziren iaz eta hauetatik 17 zuzeneko langileak dira eta 5 zeharkakoak.

2.3- Coprecin zuzeneko langileekin egin dena.

Coprecin 2000 urtean, sei hilabetez, zuzeneko langileen erabilera taldeak egin ziren, baina urte bereko urrian erabilera talde hauek bertan behera gelditu ziren. Arrazoiak: asistentzia oso baxua, motibazio eskasa, pertsona klabeen parte hartze eza, egiten ziren proposamenak bideratzeko gaitasun eza, biltzeko maiztasun eza, helburuetan ez asmatzea...

Horren aurrean euskara teknikariak proposamen bat egin zuen.

1-Lan gune bakoitzeko bilera operatiboetan euskararekin lotutako helburuak sartzea; teknikaria bilera hauetan parte hartzen hasi zen eta bilera bakoitzean 15 minutu euskararen inguruko helburuei eskaintzen zitzairen. Zereginak amaitu ahala teknikariak bilera operatiboetara joateari utzi zion.

2-Erabilera taldeetan, parte hartzen zuten langile batzuekin gai konkretuen inguruan eta maiztasun jakinik gabe biltzea (beharra zegoenean). Bertan bilera operatibotik zetozen gaiak lantzen ziren.

3-Informazioa langileen esku jartzea. Kontseilu Soziala, laguntzaileen bilera eta kontseilutxoaren bidez, departamentu bakoitzeko nahiz plan orokorreko informazioa eman eta langileen iritzia eta proposamenak jasotzen ziren.

Zuzeneko langileen terminologia lantzeko hiztegitxo bat egin zen eta Copreciko txoko guztietan dago. Gaur egun, makinatako errotulazioa, botonerak eta pantailak euskaratzen ari gara.

2.4-Copreciko zuzeneko langileen jarrerak.

Ondorengo tauletan jasotzen diren adierazpen hauek, Copreciko zuzeneko langile batzuk euskara planaren diseinua egiterakoan euskara teknikariari esandakoak dira.

Zuzeneko langilea eta Kontseiu Sozialeko kidea.	<p>Bere hitzak: “Nire ustez euskararen gaia, kontuz ibili beharreko kontua da. Jendeari ondo azaldu behar zaio ez dela inor euskaraz ikastera edo hitz egitera derrigortuko, horren inguruan entzun baititut komentarioren batzuk. Niri elebitasuna ondo iruditzen zait dokumentazioan eta errotuluetan eta horrelako gauzetan baina erdaldunak dauden bileretan-eta erdaraz egin behar da edo gutxienez elebitan. Zergatik? Beraiek txikitatik horrela edukatu dituztelako”</p> <p>Jarreraren inguruko hausnarketa: Ez zaio gaizki iruditzen beste batzuk lan egitea baina berak ez du parte hartzeko asmorik adierazi. Bestalde, beldurra dio euskaraz ez dakiteneen jarrerari.</p>
Zuzeneko langilea eta Kontseilu Sozialeko kidea	<p>Bere hitzak: “Orain arte euskara planaren berririk ez dugu jaso guk lan egiten dugun sekzioan. Pozten naiz, euskara plana gure negozioan sartzeaz. Ez du uste langileen artean kontrako jarrerak egongo direnik . Nire ustez irizpide orokor bezala, dena elebitan egon beharko luke. Bileretan ere poliki-poliki euskara sartzen joan behar da, horrela entzuten ohitzen baita. Zailena jendea planean inplikatzeko da”</p> <p>Jarreraren inguruko hausnarketa: Oso jarrera motibatua. Kexa moduan adierazten du oraindik beraiek informatu ez izana.</p>
Kalitate teknikariaren laguntzailea..	<p>Bere hitzak: “ Euskaldun gutxi batzuk badaude euskaraz lan egiteko jarrera dutenak eta plana ondo hartuko dutenak baina orokorrean ez da inplikazio handirik egongo. Hala ere gauzak egin behar direla deritzo eta bere ustez laneko terminologia landu beharko litzateke, egunero erabiltzen diren hitzak.”</p> <p>Jarreraren inguruko hausnarketa: Elkarrizketan zehar ez zitzaion motibazio handirik nabaritu baina teknikariari non eragin daitekeen aholkatu zion.</p>
Kontseilu Sozialeko kidea.	<p>Bere hitzak: “Gu aspalditik ari ginen euskara landu behar zela komentatzen eta ni Kontseilu Sozialekoa izanik gazteak niregana etortzen dira horma irudiak eta errotuluak erdara hutsez daudela esatera eta Kontseilu Sozialetik zerbait egiteko eskatzera. Ni inplikatzeko prest nago eta gazteak ere jarrera horrekin ikusten ditut.”</p> <p>Jarreraren inguruko hausnarketa: Elkarrizketa luzea izan zen, denbora asko eskaini zion teknikariari. Erdal hiztuna bada ere, jarrera oso ona du.</p>

Termostato elektrikoko zuzeneko langilea. Kontseilu Sozialeko kidea.	Bere hitzak: <i>“Euskara planetaren berri jaso dut Kontseilu Sozialean eta oso ondo iruditzen zait fabrikari horrelako gauzak egitea. Dokumentazio eta errotulazio mailan lan asko dago egiteko. Ez dut uste kontrako jarrerarik egongo denik baina elebitasuna zaindu inoiz euskara hutsean ipini diren kartelen aurrean jende kexatu egin delako. Ni lanerako prest nago.”</i>
	Jarreraren inguruko hausnarketa: Beste guztiak bezala aldaketa euskara hutsera egiteari dio beldur baina orokorrean jarrera positiboa eta parte hartzeko prest.

Goian aipatutako langileen iritzia hauek 2003. urteko apirilean jaso ziren Copreciko euskara planetan sartu berri ziren Garbiketa, Etxe Konforta eta Termostato Elektrikoa negoziotetan. Nik uste nuen baino jarrera hobeak eta motibazioak iruditu zitzaizkidan. Hala ere azpimarratzekoa iruditzen zait ia denek adierazten duten elebitasunaren aldeko jarrera, gai honen inguruan inoiz gatazkaren bat bizi izan edo ikusi izan duten seinale. Bestalde, bakoitza parte hartzeko prest agertzen da baina ez dute konfiantza handirik ingurukoak inplikatzeko ote diren.

Kontuan hartu behar da, elkarrizketatutako pertsona hauek guztiak Kontseilu Sozialeko kide direla eta honek modu batean enpresako gaitan parte hartzaile bihurtzen dituela, adibidez Kontseilutxoaren gidari. Hau dela eta, agian behartuta-edo sentitu dira parte hartuko dutela esatera.

Nekane Arratibelek HIZNET 02-an irakatsitakoaren arabera jarrerak aztertzea beharrezkoa da planetako motibazioaz ari garenean.

Motibazioa jarrerazko oinarria

Hizkuntza bat ikasteko eta erabiltzeko motibazioaz hitz egiterakoan ezin dira alde batera utzi jarrerak, motibazioak jarrerazko oinarri sendoa baitu. Jarrera kontzeptuaz aritzea ez da lan erraza, Allport-ek 100 definiziotik gora bildu baitzituen. (Allport, 1935).

Hizkuntzarekiko jarreretan garrantzia azken urteotan eginiko lan gehienek azpimarratzen dute, bai soziolinguistika tradizioan, eta baita psikologia sozialekoan ere. Honetan, bi faktore ezberdin aurkitu dituzte: bata izaera kognositiboa duena eta bestea izaera motibazionala duena; eta bigarren honekin lotzen da jarrera eta portaeren arteko harremana.

Bi faktore hauen arteko erlazioen sakontzetik zera jakin ahal izan da, ikaste prozesua garatzen deneko ingurune linguistikoak hauen arteko erlazioa baldintzatzen duela, hauetako bakoitzaren eragina matizaturik. (Gardner, 1985).

Matizazio hau Gardner eta Smythe-k zehaztu zuten beraien bigarren hizkuntza baten jabeak eredu. Autore hauek zera zioten, ingurune kultural batean subjektuak bigarren hizkuntza hori ikastea espero badu pisu gehiago izango dutela errendimenduan gaitasun kognitiboak.

Beste hizkuntz-taldeko kide izan nahi dutenen eta beste hizkuntz-taldearekin helburu utilitarioekin komunikatu besterik nahi ez dutenen artean egiten dute bereizketa. Hemendik abiatuta, motibazio instrumentala eta integratiboa bereizten dira. Jarrerak motibazioan gertatzen diren gizabanakoen arteko desberdintasunen berri ematen dute. Jarrerazko oinarri egonkor bat behar da bigarren hizkuntza bat eskuratu eta erabiltzea suposatzen duen denbora luzean motibazioa mantentzeko. Jarrera hori ezkorra baldin bada, oztopo handiak egon daitezke norberaren barnean hizkuntza hori ikasteko.

3- HIZKUNTZA PLANEN OINARRI TEORIKOAK. (TXEPETX)

Ezagutza, erabilera eta motibazioa euskara planen oinarri.

Hizkuntza bat oinarritzko hiru faktore hauengatik ikasten da Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx”en arabera: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Hiru faktoreak elkarri lotuta daude eta zirkuitu bat osatzen dute. Faktore hauetako bakoitza berezkoa ala induzitua izan daiteke. Honen arabera bi ikasketa mota daude: bata ikasketa primarioa (A), eta bestea ikasketa sekundarioa (B). Ikasketa primarioa haurtzarokoa da eta erabilera, ezagutza eta motibazioa berezkoak dira. Ikasketa sekundarioa nerabazarotik aurrera jasotzen dena da eta motibazioa, ezagutza eta erabilera induzituak dira.

Egoera normalizatu batean, pertsona denok hizkuntzaren bi ikasketa prozesuak beteko genituzke, primarioa bizitzaren lehenengo urteetan eta sekundarioa edo kulturala hezkuntza sisteman. Hizkuntza baten hiztun osoa izateak esan nahi du hizkuntzaren pertzepzio bikoitza edukitzea dela batera, berezkoa eta kulturala (AB). Hizkuntza bigarren hizkuntza bezala ikasi dutenak berriz, aurrena ikasketa sekundarioa egiten du eta gero naturaltasuna bereganatzen du (BA).

Talde mailan eta ikasketaren ikuspegitik bost dira talde soziolinguistikoak:

AB: jatorrizko hiztun kulturizatuak.

BA: heldu bertakotak

A: jatorrizko hiztun primarioak

B: ikasten ari diren helduak eta gazteak, naturaltasunik lortu ez dutenak.

O: hizkuntza ez dakitenak.


Copreciko langileak ere talde hauen arabera sailkatu ditzakegu eta hauek guztiak kontuan hartu behar ditugu euskara planetik zuzeneko langileei eskainiko dizkiegun tresna, metodologia eta aukerak aztertzerakoan.

Hizkuntz tipologia hauek guztiak orokorrean Copreciko errealitate eta zuzeneko langileen errealitatea ere badira. Lan honekin egin nahi duguna errealitate desberdinei egokituko zaion ezagutza, erabilera eta motibazioaren araberako tresna eta tekniken sailkapen bat da, gero kasuan kasu inplementatzeko prestatuko direnak.

Honen guztiaren helburuetako bat Copreciko hizkuntza komunitatea trinkotzea da. Hizkuntz komunitate bat trinkotzeko ondorengo osagaiak lotu behar dira:

- Hizkuntzaren ikasketa naturalaren eta ikasketa kulturalaren zirkuitua osatu.
- Hizkuntzaren erabilera maila ezagutzaren parean jarri.
- Talde soziolinguistikoak elkarren artean lotu, besteak beste, belaunaldien arteko katea sendotu: alde batetik, gazteek euskararik hoberena duten zaharregandik ikastea, eta hauek euskara erabiltzeko motibatuta sentitzea ikusten dutelako euren hizkuntza baliagarria zaiela belaunaldi berriei. Bestetik, zaharrek gazteengandik ikastea, hauek eskolan ikasitako euskara teknikoaren jakintza baitute.

Hizkuntza komunitatearen trinkotzea ondoko diagraman ikusi daiteke:




Hizkuntza komunitatearen artikulazio diagrama (iturria: Sanchez Carrion 1987,380)

Txepetxen hizkuntza komunitatearen artikulazioaren diagrama honetan, Copreciko euskara plana kokatu dezakegu: *Motibazio/ezagutza/erabilera taldeak*, gaur egungo lan taldetxoak izango lirateke. Idatzizkoa lantzeko taldea, Ahozkoa lantzeko taldea eta Informatika lantzeko taldea ERABILERA taldeak izango lirateke, formazioko lan taldetxoa eta kontratazioko lan taldetxoa EZAGUTZA taldeak, eta Komunikazioko lan taldetxoa eta Motibazioa lantzeko taldetxoak MOTIBAZIOA taldeak. *Elkarrekintza taldea*, koordinaziorako eta eragile lanak egiteko taldea izango litzake EUSKARA BATZORDEA eta *hizkuntza plangintza taldea*, teknikariek osatuko lukete maila batean. *Botere euskaldunean*, Copreciko organoak egongo lirateke benetan euskalduna izango balira.

Ondorengo grafikoak, hizkuntza komunitatearen artikulazioan oinarri harturik Copreciko planaren egitura adierazten du:

COPRECIKO EUSKARA PLANA



4- ZUZENEKO LANGILEEKIN LAN EGITEKO TRESNA ETA TEKNIKAK. (EMUN)

4.1- Zuzeneko langileekin lan egiteko erabili daitezkeen tresna eta metodologiaren sailkapena.

Ondoren, zuzeneko langileekin lan egiteko erabili daitezkeen tresna, metodologia, teknika, ekintza edo zereginak zerrendatuko ditut. Ez dira hauek bakarrak, gehiago egon daitezke baina ni 15 hauetara mugatuko naiz. Hasiera batean ekintza hauek ezagutza, erabilera eta motibazioaren arabera zerrendatzen ditut, baina ekintza hauetako bakoitzaren ondorioek, arlo hauetako bati baino gehiagori erantzuten diotenez bakoitzari bere fitxa egingo diogu eta banan bana aztertuko ditugu. Fitxa horretan bertan aipatuko dugu Coprecin zer egin den gaiaren inguruan edo zer egin daitekeen zuzeneko langileei begira.

Taula honek, gero beherago azalduko ditudan hainbat tekniken sailkapena jasotzen du ezagutza, erabilera eta motibazioaren arabera.

EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> Euskara eskolak Terminologia lantzeko taldeak Alfabetatze ikastaroak. Ezagutza lantzeko taldeak. Terminologia hiztegia. 	<ul style="list-style-type: none"> ZUL erabilera taldeak. ZUL eta ZEL nahastuta erabilera taldeak. Mintzataldeak. Bazkaltegi. Kontseilutxoetan euskararen gaia sartu edo punturen bat euskaraz egin. Jarraipen pertsonala. 	<ul style="list-style-type: none"> Motibazioa lantzeko taldea. Euskararen orria. Lehiaketa. Kanpainak:sloganak, komikiak, txisteak... Euskararen txokoa/ Txokoetan euskararen karpeta.

4.1.1- Euskara eskolak

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
EUSKARA ESKOLAK	Euskara ikasteko eskolak. Lantegian edo euskaltegian.	Irailan eta otsailean egiten dira matrikulazio kanpainak	-Matrikula. -Eskoletara joateko orduak. -Euskaltegia.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Ezagutza lantzen da.	Euskalduntze prozesuan hirurak lotuta daudenez, ezagutzak erabilera ekarriko du. Baina etena egon daiteke ikasitakoa erabiltzeko.	Euskalduntze prozesuan hiru arloak lotuta daudenez Motibazioari ere eragiten dio. Segun eta ze momentutan ikaslea motibatu edo desmotibatu egin daiteke.
	Copreci: Gaur egun Coprecin zuzeneko langileak diren 8 pertsona joaten dira euskaltegira. Matrikulazioak Coprecik ordaintzen ditu. Lan orduak langileak ipini behar ditu.		
Oharra: Garrantzitsua da euskara eskoletara joaten diren langileei jarraipena egitea eta ikasitako lan tokian erabiltzeko laguntza eskaintzea. Adibidez, euskara ikasten ari den langilearen inguruan lan egiten duen euskal hiztunekin hitz egin eta euskaraz hitz egiteko eskatu...			

4.1.2- Terminologia lantzeko taldea

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
TERMINOLOGIA LANTZEKO TALDEAK	Langileen hiztegia aberasteko helburua duen lan taldea da. Bertan terminoak bildu, kontsulta teknikoak egin, proposamena landu eta adostu egingo da.	-Inplementazioan sortutzen da talde hau. -Diseinuan ezarritako helburuak aurkeztu ondoren langileak antolatzen dira terminologia euskaratu, adostu eta inplementatzeko. -Astean behin, hamabostean behin...bildu daiteke, erritmoaren arabera.	- <i>Giza baliabideak</i> : taldea sail desberdinetako langilez osatuko da ezagutza aberatsagoa izan dadin. Teknikariak ere parte hartuko du. - <i>Baliabide teknikoak</i> : hiztegiak eta euskarri informatikoak (Acces, Excell...).
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Langileek urte askotan erdaraz erabili dituen terminoak euskaraz nola diren ezagutzen ditu.	Behin euskarazko terminologia inplementatzen denean, hurrengo helburua erabiltzen hastea izango da eta horretarako ere bideak erabili beharko dira.	Euskarazko terminologia erabiltzea lortzen bada, langileak motibatu egingo dira eta honek beraien jarreran eragina izango du. Helburua lortzen ez bada desmotibagarria ere izan daiteke. <i>“zertarako hartu lan hauek gero erabiliko ez baditugu!!!”</i>
	Copreci: Coprecin lan hau erabilera taldean egin izan da baina erabilera taldeko bilera bakar bat motz gelditzen da lan hau egiteko. Errotulazioa euskaratu behar den momentuan horrelako talde bat sortzea egokia litzateke. Coprecin momentu honetan Garbiketa eta Etxe Konforteko zuzenekoekin dugu lan hau egiteko aukera.		
	Oharra: Terminologia lantzeko talde hauek Goizperren erabili ziren. Ondorioz hiztegi tekniko bat egin zuten paperean eta ordenagailuan.		

4.1.3- Ezagutza lantzeko taldeak

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak
EZAGUTZA LANTZEKO TALDEAK.	Eguneroko lan jardunean oinarritutako ikastaro laburra. Adibidez, Office 2000 euskaraz nola erabili.	Edozein momentu izan daiteke egokia. Departamentuan ipini diren idatzizko helburuei erantzuteko erabili daitezke.	Ikastaroak lantegian bertan izango dira eta euskara teknikariak emango ditu, lantegia eta produktua ezagutzea ezinbestekoa baita. Dedikazioa eskatzen du.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Ezagutzan eragiten du.	Ikastaroaren helburuak betetze badira, idatzizko erabileran ere eragingo du.	Motibagarria izan daiteke langileek erronka moduan hartzen badute.
	Copreci: Orain arte ez da egin.		
	Adib: Bi orduko ikastaro labur bat izan daiteke, lan bonoa euskaraz bete, hurrengo errelebokoari oharrak euskaraz utzi eta lan tresneriaren terminologia euskaraz erabiltzen ikastea. Goizperren egien izan dira.		

4.1.4- Alfabetatze ikastaroak

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
ALFABETA- TZE IKASTAROA	Euskaldun alfabetatu gabeak idatzizkoan trebatzeko ikastaroak	-Urte guztirako alfabetatze ikastaroa euskaltegian. -21 orduko modulu txikian lantegian bertan.	- Ikastaroa teknikariak edo euskaltegiako irakasleek eman dezakete.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Ezagutzan eragiten du.	Ikasleek ikasten badute, erabiltzen hasteko aukera egongo da.	Euskalduntze prozesuan hiru arloak lotuta dauden Motibazioari ere eragiten dio. Ikastaroaren hasieran normalean ikasleak motibatuta egoten dira baina denborarekin nekeak eta beraiek nahiko luketen maila lortu ezinak desmotibatu ere egin ditzake.
	<p>Copreci: Coprecin 21 orduko ikastaro laburrak egiten dira. Urtean birritan antolatzen dira eta parte hartzaile denak zeharkako langileak izaten dira.</p> <p>Oharra: Alfabetatze ikastaroak zuzeneko langileei ere eskaini daitekeela uste dut, euskalduntzeko aukera zuzeneko eta zeharkako langileei eskaintzen zaien bezala. Beste kontu bat izango da enpresa barruko helburu komunikatiboetan zenbat eragingo duten.</p>		

4.1.5- Terminologia hiztegitxoa

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
TERMINO- LOGIA HIZTEGI- TXOA.	Erabiltzen den terminologia guztia hiztegitxo batean jasotzea. Tresna, makina eta erreminten terminologia lantzeko hiztegiak argazkiak izan ditzake.	Edozein momentutan.	Egiteko baliabideak: -Argazki kamera bat (hiztegiak argazkiak eraman ditzake) -Hiztegi teknikoak. Zabaltzeko baliabideak: -Txokoetan... - Lan guneka.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Ezagutzan eragiten du.	Hiztegitxoa erabiltzen bada, erabileran ere eragingo du.	Terminologia hiztegiarekin langileari egunerokoan eskuragarri izango dituen tresnak eskaintzen zaizkio, eta honek erabiltzen jarraitzeko motibatu ditzake.
	<p>Copreci: Tresneriaren hiztegitxoa egin da. Tailerrean erabiltzen den tresneriari argazkia atera eta hiztegitxo bat osatu da irudi eta guzti. Copreci guztirako terminologia hiztegia egin daiteke.</p> <p>Oharra: Goizperren oso lan txukuna egin zuten arlo honetan eta gaur egun oraindik jaten ematen diote hiztegiari horretarako sortu duten programa informatiko baten bidez.</p>		

4.1.6- ZULen erabilera taldeak

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
ERABILERA TALDEAK ZUL	ZULen erabilera taldea euskal hiztunen bilera bat da. Helburu nagusia euskararen erabilera bultzatzea da, horretarako taldea motibatuz. Planaren diseinuan departamentu horretarako ezarri diren helburuak lantzeko gunea ere bada.	-Inplementazioaren hasieran izan daiteke momentu egokia, dena dela batzutan zuzeneko eta zeharkakoen artean zeharkakoak aukeratzen dira inplementazioaren hasieran lantzeko. Arrazoiak, erabiltzen duten dokumentazio kopurua izan daiteke, bestalde zeharkako langileekin bilerak egitea errazagoa izan ohi denaren sentsazioa izaten dugu. - Erabilera taldeko bileren maiztasuna taldeak erabakiko du. Normalean hamabostean behin edo hilean behin izaten dira.	-Teknikariak parte hartu ohi/behar du. -Bilerak enpresan bertan egingo dira eta posible balitz departamentuan bertan. -Bilerak lan ordutan edo lan orduetatik kanpo izan daitezke.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Ezagutzan ere eragiten du, terminologia, trebatzeko ariketak...	Batez ere erabilera eragiten du, bertan parte hartzen duten langileen hizkuntz ohituretan.	Erabilera taldea euskara planaren informazioa trukatzeko, trebatzeko eta helburuak lantzeko erabiltzen denez parte hartzaileak motibatzen saiatzen gara. Batzuetan ez da lortzen.
	Copreci: Coprecin Garbiketa eta Etxe Konforteko zuzeneko langileekin daude erabilera taldeak egiteko aukerak.		
Ondorioak: ZULEko erabilera taldeak buruhauste bat baino gehiago sortu izan du euskara planak indarrean dauden enpresetan. Horregatik, Emunen mintegi bat egin zen ZULen erabilera taldeekin lan egiten zuten teknikariek eta erabilera talde hauek ondo aztertu ondoren, ondorio hauek atera zituzten besteak beste: -Erabilera taldea egingo den lan gunean dauden euskaldun kopurua garrantzitsua da, euskaldunak erdaldunen artean nahastuta daudenean zailtasunak handiagoak dira. -Zuzeneko langileen gehiengoak erabilera taldean parte hartzen badu arrakastarako aukera handiagoa da. Bata bestea motibatzen dute. -Zuzeneko langile gutxi biltzen direnean, talde hauek eraginkortasunik ez duten sentimendua izaten dute. -Erabilera taldetik kanpo partaideek euren artean harremana izatea ezinbestekoa da. - Lanaldi “normalean” ari diren langileen erabilera taldeak arrakastarako aukera gehiago dituzte erreleboan dabiltzanek baino. -Orduak erreperatu beharrik ez izateak asko laguntzen du. -Ordutegi onena lehenengo orduak edo azkeneko orduak izaten dira.			

4.1.7- Mintza taldeak

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
MINTZA TALDEAK	Mintza praktika egiteko taldea da. Normalean euskara ikasten ari direnak edo euskara traketsa dutenentzat izaten da. Ahozkoan trebatu eta ohituretan eragitea du helburu.	Edozein izan daiteke horrelako talde bat ipintzeko momentua. Astean behin maiztasun egokia litzateke	<ul style="list-style-type: none"> Euskara teknikaria Taldean ahozkoa lantzeko dinamika eta metodo eraginkorrak. Lan orduetatik kanpo izango lirateke.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Trebaketa ekimen bat denez, parte hartzaileen ezagutzan eragiten da.	Saio hauetan langileak euskara erabiliko du eta bertan jasotako ezagutza eta motibazioak arrakasta balu, saio hauetaik kanpora euskara erabiltzeko aukerak ere gehiago dira.	Saio hauetan ahozkoa lantzeko jolas eta metodologia desberdinen bidez parte hartzea eta motibazioa landuko da.
	Copreci: Duela bi urte talde bat egon zen Coprecin baina zeharkakoek parte hartzen zuten. Ez zuten arrakastarik izan, parte hartzaile batzuen arabera aspertu egiten omen ziren eta lan asko zutela pentsatzean denbora galtzen ari zirela uste omen zuten. Dena dela euskaltegian jarraituko ez duten ikasleekin erabiltzeko tresna egokia izan daiteke.		

4.1.8- Bazkaltegi

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
BAZKALTEGI	Ahozko harremanetan eragiteko asmoz euskaldun berri eta zaharrak elkarrekin bazkaltzea, naturaltasunez harremanetan egon daitezten.	Astean behin, bitan... partehartzaileek erabakiko dute. Ekimena iraunkorra da.	Taldeak osatu behar izaten dira. Euskaldun berri eta zaharrak banatu, ordutegi eta aukeratu duten asteko egunaren arabera.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Ahozko erabileran trebatzen da.	Batez ere erabileran eragiten du. Euskara ikasten ari direnen erabilerak gora egiten baitu.	Denborarekin ikasleek euskaraz hitz egiteari beldurra galtzen diote, eta hau oso motibagarria da.
	Copreci: Lan hau egiten ari naizen aste hauetan bertan jarri da martxan eta bai zuzenekoak eta bai zeharkakoak apuntatu dira.		
Oharra: Hainbat herritan erabili den “Mintza-laguna”ren proiektutik hartutako ideia da. Fagor Elektronika, Arrasate eta Automationen egiten dira.			

4.1.9- Kontseilutxoetan euskararen gaia sartzea

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
KONTSEILU-TXOETAN EUSKARA SARTZEA.	Hileroko Kontseilu Sozialeko deskarguan euskara planeko gai bat edo batzuk sartzea. Helburua euskara planeko informazioa langile guztiei zabaltzea da.	Hilean behin Kontseilu Sozialean eta ondoren lan gune bakoitzeko kontseilutxoan.	- Gai zerrenda eta akta eredu euskara planak bere lekua izatea.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
		Kontseilu Sozialean euskara planaren gaia sartzeko bada euskaraz egingo da. Bileraren zati batean euskara erabiliko da.	Euskara planeko komunikazio bat gehiago den heinean motibazioan eragitea bilatzen du.
	Copreci: Kontseilu Sozialean Copreciko gaien deskargua lehendakariak egiten du. Euskara planeko atala Kontseilu Sozialean dagoen Euskara Batzordeko kideak azalduko du.		
Oharra: Garrantzitsua da, bilera deia, gai zerrenda eta akta eredu euskara Planaren izeneko arloa txertatzea. Modu honetara informazioa egon edo ez presentzia beti bermatuko da.			

4.1.10- Jarraipen pertsonala

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
JARRAIPEN PERTSONALA	Langile bakoitzarekin egiten den elkarrizketa multzoa da. Elkarrizketa hauetan langileak euskararekiko helburu batzuk ipintzen ditu eta hurrengo elkarrizketetan teknikariarekin batera jarraipena egiten dio.	Pertsona bakoitzari egiten zaion jarraipen pertsonalak hasiera eta bukaera izatea komeni da. Bakoitzarekin 3-4 saio nahikoa dira. Bi hilabetean behin? Erabilera taldeak bukatzen direnean izan daiteke momentu egokia, langileekin harremanetan jarraitzeko	Horretarako prestatutako fitxa batzuk erabiltzen dira. Euskara teknikariarekin aurrez aurre egiten dira bileratxoak.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
		Jarraipen pertsonalean ipintzen diren helburu gehienek erabilera pertsonalari erantzuten diote, bai idatzizkoari eta bai ahozkoari	Jarraipen pertsonalizatua izango duela jakitean langilea bere buruari erronka bat ipintzen dio helburuak lortzeko. Motibagarria izan daiteke.
	Copreci: Zeharkakoekin egiten da. Zuzenekoekin egiteko moduak aztertu daitezke. Erabilera taldeak bertan behera gelditu ondoren, parte hartzen zuten langileei jarraipen pertsonalago bat egiten hasi zitzaion.		
Oharra: Langile bati jarraipen pertsonala egiteko orduan beharrezkoa da metodologia berarekin adostu eta bere dokumentu eta komunikazioak aztertzeko baimena eskatzea.			

4.2.11- Motibazioa lantzeko taldeak

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
MOTIBAZIOA LANTZEKO TALDEAK	Euskara eta euskara planaren inguruan langileak motibatzea helburu duen taldea. Motibazioa lantzeko ekintzak aurrera eramaten dituzte.	Edozein izan daiteke momentu egokia. Hilabetean behin koordinatu eta hilabetean zehar hainbat ekintza egin daitezke.	Ekintza bakoitzak bere baliabideak eskatzen ditu.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
			Zuzenean motibazioan eragiten du.
	Copreci: Coprecin Euskara Batzordeko lan taldetxo bat da Motibazio lan taldetxoa eta zuzeneko langile bat da bilera gidatzen duena.		
Oharra: Goizperren egon ziren talde hauek. Lan asko eta ondo egin omen zuten.			

4.1.12- Euskararen berripapera

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
BERRI PAPEREA	Euskara batzordeak argitaratzen duen berri paper edo euskararen orria. Langile guztiei banatzen zaie eta helburua langileak informatu eta motibatzea da.	Ekintzari ematen zaion garrantzi eta dedikazioaren arabera aldi ezberdinetakoa izan daiteke. Hilabetekaria, aldizkaria, astekaria...	-Baliabide ekonomikoak: materiala, inprimaketa... - Baliabide pertsonalak: lan egiteko prest dagoen jendea, editoriala idatziko duen euskara batzordekideak...
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Irakurleak euskaraz trebatzeko testuak argitaratu daitezke.	Euskaraz irakurtzea.	Euskara hutsezko orri batek, enpresaren barruan euskararen presentzia bermatzen du. Presentzia hau motibagarria izan daiteke.
	Copreci: Coprecin “Ahoz aho” euskararen orria sortu da eta dagoeneko bi ale argitaratu ditu. Motibazioko lan taldetxoa da proiektuaren bultzatzaile eta euskara batzordekideek editoriala egiten dute. Oraingo harrera ona izan du.		
Euskararen orri egiteko lana teknikariak bere gain hartu beharrena komenigarria da enpresako langileen artean lana banatzea, erabilera taldeetan, Euskara Batzordean...			

4.1.13- *Lehiaketa*

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
LEHIAKETA	Zenbait euskarri desberdinak erabiliz langileen artean saltsa sortzeko asmoarekin egiten den lehiaketatxoa.	Edozein.	Ohar taulak, berri paperak, kafe makinak, intraneta... edozein euskarri erabili daiteke.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Lehiaketan galdetzen den gaiaren arabera ezagutzen eragina izango du.		Motibazioa helburu duen ekimena da.
	Copreci: Ez da orain arte egin. Berri papera, txokoak eta intraneta erabiliz lehiaketa martxan jarri daiteke.		

4.1.14- *Euskararen aldeko kanpainak*

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
KANPAINAK	Euskararen aldeko kanpainak egitea. Gizartean, herrian edo enpresan euskararen inguruan sortu edo gertatu denaren inguruan jendea sentsibilizatzea da helburua	Momentuan momentukoa. Kanpainak denboran zehar antolatzea komeni izaten da eta fase bakoitzak bere helburua izango du. Hasiera eta bukaera izaten dute.	Ohar taulak Intraneta. Berri papera. Outlooka. Kafe makina... Txokoak Erabilera taldeak
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Kanpaina batzuk informatzea, komunikatzea dute helburu eta honek ezagutzen eragiten du.		Zuzenean motibazioari eragiten dio. Kanpainak modu antolatu batean egiten dira eta kanpainaren pauso bakoitzak erreakzioak bilatzen ditu jendearengan.
	Copreci: Orain arte ez da ohiturarik egon kanpainak egiteko. Orain Bazkaltegi gai hartuta ari gara kanpaina egiten.		
Oharra: Kontuan hartu behar dira kanpainaren hartzaile izango direnen ezaugarriak. Gerta daiteke enpresa batean izugarritzko arrakasta izan duen kanpaina batek beste enpresa baterako ez balio izatea.			

4.1.15- *Euskararen txokoa / Txokoetan euskara*

	Zer da? Helburua?	Momentua, maiztasuna...	Baliabideak?
TXOKOETAN EUSKARAREN PRESENTZIA	Euskara eta euskara planaren informazioa trukatzeko, kanpainak egiteko eta erreferentzia puntu bat izateko gune fisikoa.	Txokoetako euskara planeko informazioa hilero eguneratzen da.	Leku fisiko bat, txoko bat eta hau hornitu, apaindu eta egokitzeko behar diren baliabideak.
	EZAGUTZA	ERABILERA	MOTIBAZIOA
	Copreci: Euskararen txokoa sortzearen aukera baztertu egin zen baina ordezkari aukera bat sortu zen. Coprecin zeuden txokoetan euskara planeko karpetak ipini ziren.		
	Oharra: Enpresako txokoetan euskara planari bere lekua egiteaz ari gara baina beste aukera bat euskararen txokoa sortzea da.		

4.2- GOIZPER. Zuzeneko langileekin lan egin duen euskara plan bat.

Lan honen helburua zuzeneko langileak euskara planetan parte hartzeko metodologiak aztertzea da eta horretarako azken urte hauetan zuzeneko langileekin lanean ari den euskara plan baten berri emango dut, Goizperreko euskara plana. Dena dela kontuan hartu beharreko puntua da Goizperreko langileen %94 euskal hiztuna dela, beraz ideia batzuk hartu baditzakegu ere bi errealitate guztiz desberdinetaz ari gara. Goizper Antzuolan dago eta 180 langile inguru ditu bi negoziotan (Nekazaritza eta Industrialia)

Orain dela 3 urte hasi ziren Goizperren zuzeneko langileekin erabilera taldeak egiten. Erabilera taldeak hilean behin egiten ziren eta ia zuzeneko langile guztiek parte hartzen zuten. Lehenengo egin beharrekoa helburuak ipintzea izan zen baina lan hau oso zaila egin zitzaizen teknikariak ez baitzituen zuzeneko langileen eta batez ere hauetako bakoitzaren lana, harremanak, dokumentuak, prozesuak... ezagutzen. Honen ondorioz Euskara Batzordeak zera erabaki zuen, erabilera talde bakoitzari helburu bat ezartzea. Aurrez osaturiko erabilera talde bakoitzeko bi langile aukeratu zituzten eta beraiekin hitz egindako bileretatik ideia zerrenda bat atera zen. Ideia zerrenda honetan gehiena terminologia eta mezu laburren ingurukoa zen, halere 7-8 eginkizun hauek atera zituzten:

- 1- Motibazioa landu beharra. Erabilera talde batek hartu zuen honen ardura eta motibazioa lantzeko taldea izatera pasatu zen.
- 2- Terminologia identifikatzeko beharra. Erabilera talde batek edo bik hartu zuten horren ardura eta planoetako, lan prozesuetako eta bidatz orrietako terminologia identifikatzea izan zen beraien helburu nagusia.
- 3- Terminologia itzulpenak adostea. Horretarako beste talde batzuk sortu ziren eta terminologia identifikatzeko ardura zuten taldekoekin koordinatzen ziren.
- 4- Lan prozesuak identifikatzea.
- 5- Lan prozesuetako euskararen ezagutza lantzea. Erabilera talde bat ezagutza lantzeko taldea izatera pasatu zen.
- 6- Mezu labur eta ohartxoak. Erabilera talde baten zeregina izan zen.
- 7- Ahozkoa lantzeko taldea. Ahozkoa lantzeko erabilera taldea.

Zeregin hauek betetzeko lan taldeak egin ziren. Talde bakoitzean liderrak sortu ziren, hirugarren edo laugarren bilera eta gero, talde bakoitzak aukeratutako ordezkari batek hartu baitzuen taldea gidatzeko ardura eta nahiz eta teknikariak koordinatu taldeak bere kabuz hasi ziren funtzionatzen. Bilera hauen dedikazio erdia langileek ipintzen zuten, beste erdia enpresako orduetan sartzen zen. Hiru hilean behin talde bakoitzetik ordezkari bat eta teknikariek koordinazio bilera egiten zuten, deskargua egiteko, taldeko iritziak azaltzeko eta abar.

Terminologia lantzeko taldeak

Negozio bakoitzean 2 talde zeuden identifikazio taldea eta terminoak adosteko taldea. Bi negoziotako taldeen funtzioak berdinak ziren baina bakoitzean bertako terminologia lantzen zen. Terminologia adosteko taldeetan, teknikariak, ingeniarietatik zetozen gazteak eta bizitza guztia Goizperren zeuden zaharragoak elkartzen ziren.

Hurrengo pausoa taldekide bakoitzak bere ardura hartzea izan zen, batzuk identifikazio lana egiteko ardura planoetan, besteek karpitetan, beste batzuk dokumentuetan... Bakoitzak bere itzulpen proposamena ekartzen zuen, terminoaren definizio eta guzti, zer da, zertarako, non erabiltzen da... eta gero adostasun taldekoekin koordinatzen ziren. Astean behin elkartzen ziren.

Motibazioa lantzeko taldeak

Talde hauetan ekintza zehatzak egiten ziren.

- Gaizki erabiltzen diren esaldiekin komikiak egin eta zabaldu.
- Hitz teknikoen eguna antolatu.
- Terminologia taldekoen hitzekin enpresa enpapelatu.
- Lehiaketak.

Lan prozesuak euskalduntzeko taldea

Talde bakar batek hartu zuen lan prozesuak euskalduntzeko zeregina. Lan prozesuak identifikatu, mota ezberdinak sailkatu eta idazteko gaitasun gehien zuenak deskribapenak egiten zituen. Talde honek, karpeta guztiak euskaraz egotea lortu zuen. Talde honen azken helburua prozesu hauek euskaraz erabiltzea da eta honek beste taldeekin koordinatzea eskatzen du.

Ezagutza lantzeko taldea

Beharra ikusten zenean trebaketarako erabilera taldea sortzen zen. Zuzeneko eta zeharkakoek parte hartzen zuten eta hiru edo lau saio egiten ziren

Ahozkoa lantzeko taldea

Talde hauetan, adostutako terminologiaren ahozko erabilera bultzatzen zen. Helburua, langileak termino hauek erabiltzen ohitzea zen. Taldea hilean behin biltzen zen eta partaide bakoitzak hilabetean egin zuen lanari buruz hitz egiten zuen termino berriak erabiliz.

Talde hauen 2-3 urte iraun zuten. Arrakastaren arrazoiak, beste batzuen artean bi izan daitezke:

1-Langile gehienek parte hartzen zuten, ez zeuden batzuk esfortzua egiten eta besteak kritikatzin.

2-Bilera hauen dedikazioaren erdia langileek ipintzen zuten baina beste erdia enpresak.



Hiru urte eta gero topea jo zuten, nekatzen hasi ziren, beraien artean kritikatzeko hasi ziren eta enpresako enkargatuen jarrera ere aldatzen hasi zen. Baina denbora horretan guztian zuzeneko langileak planaren protagonista izateak eragin handia izan zuen plan orokorrean, zeharkakoak eta batez ere organoak presionatzeko balio izan zuen. Hala ere bulegoetatik ez zen behar bezala erantzun. Langileek beraiek egindako lan guztia eta gero enpresako gauzak euskaraz eskatzen hasi ziren baina ez zitzairen erantzuten. Erritmo ezberdinak zeuden eta honek giroa berotu egin zuen.

Hiru urte pasa eta gero 6 hilabeteko eten bat egon da eta berriro martxan jarri dira. Orain ez dira erabilera taldeak ez eta lan taldeak ere, orain euskara taldeak deitzen dira eta lehengo egitura bera dute. Zeregina berriz guztiz bestelakoa da, orain Emunen sorturiko diagnostiko tresnako adierazleak arabera funtzionatzen da eta bilerak hiru hilabete behin egiten dira. Bilera erdia plan orokorraren deskargua egiteko erabiltzen da, beste zati bat bakoitzaren konpromiso pertsonalen erreposoa egiteko eta azkenik 15 minutu inguru motibazioari eskaintzen zaizkio. Metodologia berri honen bidez zuzeneko langileak ez dira lehen egiten zuten lana egiten ari, gasolina gutxiago dute.

4.3- Copreciko zuzeneko langileekin lan egiteko proposamena.

Copreciko negozio berrien inplementazioaren lehenengo fasean batez ere zeharkakoekin ari gara lanean, baina diseinua egin genuen garaian adostu genuen bezala aurtengo gabonak eta gero zuzeneko langileekin hasiko gara berriro.

Azken urteetako esperientzia kontuan hartzen badugu, ez da lan erraza izango baina euskara planarentzat ezinbestekoa da zuzeneko langileek plana ezagutzea, guri teknikariok beraien lanaren nondik norakoa azaltzea, elkarrekin helburu txikiak ipini eta lantzea.

Esaten ari naizen bezala, alde batetik negozio berriak ditugu baina Copreciko zuzeneko langile guztiengan eragina izango duen proposamena ere egingo dugu.

Negozio berrietako zuzeneko langileak.

Negozio berrietan, eta 2004ko urtarrilera begira, erabilera taldeak proposatuko ditugu. Baina erabilera talde hauek ez dira izango orain arte Coprecin egin izan diren bezalakoak. Talde hauek planifikatuak eta denbora konkretu baterako izango dira, hau da hasiera bat eta bukaera bat izango dute. Goizperren bezala, talde bakoitzak bere funtzioak izango ditu, errotulazioa lantzeko taldea, terminologia lantzeko taldea, motibazioa lantzeko taldea... Hileroko bilerak ahalik eta eraginkorrenak egiten saiatuko gara. Hau da erabilera taldea helburuak ipini, lana banatu, moduak adostu eta koordinatzeko gunea izango da eta egin beharreko lana erabilera taldetik kanpo egin behar da hilabetean zehar.

Proposamena negozio bakoitzeko zuzendariarekin adostuko da eta urtarrilean bertan hasiko gara zuzeneko lanpostuak dituzten euskal hiztunei proposamena egiten. Hau izango litzateke prozesua:

ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA
Negozio bakoitzeko zuzendariari proposamena egin	Zuzeneko langile euskal hiztunekin hitz egin eta erabilera taldeen berri eman.	Talde bakoitzean, lehenengo erabilera taldea deitu, plana aurkeztu, helburuak adostu...	Erabilera taldea 1	Erabilera taldea 2
MARTXOA	EKAINA	UZTAILA		
Erabilera taldea 3	Erabilera taldea 4	Balorazioak egin eta aurrera begira ze bidetatik jarraitu aztertu. Bi aukera, erabilera taldeekin jarraitzeko beste planifikazio bat egin edo erabilera taldeak utzi eta Coprecin zuzeneko langileei zuzenduta, euskara plan orokorretik egingo diren ekimenekin gelditu.		

Fabrikazio gune bakoitzeko txokoak izango dira informazio gune eta bertan jadanik hileroko eguneratzen den euskararen karpeta bilduko da informazioa, aktak eta abar. Erabilera talde hauek martxan jartzea lortzen badugu, zuzeneko langileen artean kanpainak egiteko modu eraginkor bat izango dugu, ahoz ahoko komunikazioa baita informazioa zabaltzeko modu egokiena.

Negozio berrietan oinarrizko lanak egiten ari gara oraindik eta asko gelditzen zaigu egiteko. Horregatik da momentu egokia zuzenekoak inplikatzeke, terminologia adostu, errotuluak euskaratu, zuzenekoek egin ditzaketen lanak dira eta hauek motibatzea lortzen badugu bidea luzeagoa izan daiteke.

Copreciko zuzeneko langileak

Copreciko euskara plan orokorretik, zuzeneko langileei zuzenean eragiteko 2 proposamen egingo dira.

- 1- Euskara eskoletan noizbait ibili diren euskaldun berri guztiei eta euskal hiztun traketsei zuzendutako mintzatalde bat sortzea. Langile batzuk ez dira erabilera taldeetan hasiko beraien euskararengatik duten konplexuagatik, baina mintzatalde baten parte hartzeko prest egon daitezke.
- 2- Kontseilu Sozialean euskara planaren deskargua egiteaz gain, bilera hauetako komunikazioa euskalduntzeko helburuak ipintzea, ahozkoan eta idatzizkoan. Kontseilu Sozialeko kideek, gero Kontseilutxoak egiten dituzte bakoitzak bere lan guneetan eta Kontseilutxo hauetan, helburu komunikatiboak ipiniko ditugu. Hauek izango dira eman beharreko urratsak:

Lehenengo fasea, Kontseilu Soziala:

- Bilerako hizlariak (lehendakaria eta idazkaria) eta hartzaileak (Kontseilu Sozialeko kideak) identifikatu.
- Bilerako hizlarien eta hartzaileen hizkuntza egoera aztertu.
- Bilerako ahozko eta idatzizko erabilera aztertu eta helburuak jarri.
- Jarraipena egin.

Bigarren fasea, Kontseilutxoa:

- Kontseilu Sozialeko kide bakoitzarekin hitz egin bere taldearen hizkuntza errealitatearen inguruan eta helburu komunikatiboak ipini daitezkeen aztertu.
- Kontseilutxo bakoitzerako ipintzen diren helburuak betetzeko bitartekoak eta laguntza eskaini.
- Jarraipena egin.

Zuzenekoak motibatzeke orduan, asko lagunduko digu Copreciko euskara plan orokorrean, komunikazioko eta motibazioko lan taldetxoetatik, hiru hilabeteetan behin banatuko den AHOZ AHO euskararen orriak

Bestalde, poliki-poliki makina berriak ere euskaraz datoz, pantailak, errotulazioa, botonerak elebitan dituzte azkenaldi honetan Coprecira datozen makinak, honek ere ekarriko du zeregina, pantaila asko euskara/gaztelania aukeratzeko izango dira eta euskaldun zahar alfabetatu gabeak trebatu egin beharko ditugu euskarazko aukera egin dezaten.

Ondorengo taulan laburbilduko ditut, lanaren hasieran aurkeztutako tekniketatik zein erabiliko ditugun.

TEKNIKAK	NEGOZIO BERRIAK	COPRECI
Euskara eskolak.		Copreci guztiko langileei eskainiko zaie euskaltegira joateko aukera.
Terminologia lantzeko taldeak.	Zuzenekoekin egingo ditugun erabilera taldeetako batek izaera hau hartuko du.	
Alfabetatze ikastaroak.		Copreciko langile guztiei eskainiko zaie.
Ezagutza lantzeko taldeak	Zuzenekoekin egingo ditugun erabilera taldeetako batek izaera hau hartuko du.	
Terminologia hiztegia.		Orokorrean landuko da.
ZUL erabilera taldeak	Urtarrilean hasiko gara, Garbiketan eta Etxe Konfortean.	
Mintzataldeak		Copreciko zuzeneko langile euskaldun berriei eta euskaldun traketsei eskainiko zaie.
Bazkaltegi		Copreci guztiko langileei eskainiko zaie. Jadanik martxan dago eta zuzeneko nahiz zeharkakoek parte hartzen dute.
Kontseilutxoetan euskara sartzea		Kontseilu Sozialean eta Kontseilutxoetan eragiten saiatuko gara.
Jarraipen Pertsonala		Momentuz zeharkako langileei bakarrik egingo zaie.
Motibazioa lantzeko taldea	Zuzenekoekin egingo ditugun erabilera taldeetako batek izaera hau hartuko du.	
Euskararen orria		Langile guztiei nominarekin, Ahoz Aho euskararen orria banatzen jarraituko dugu.
Lehiaketa		Motibazioko lan taldetxotik bultzatuko dira lehiaketak. Motibazioko lan taldean zuzeneko langileek parte hartzen dute.
Kanpainak	Zuzeneko langileen erabilera taldeak martxan jartzen badira kanpainak egiteko modu eraginkor bat ahoz ahokoa izango da.	
Euskara txokoetan.	Negozio berrietan martxan jarriko ditugun erabilera taldeen informazio gune izango dira.	Copreciko txoko guztietan eguneratuko da euskara planaren informazioa.

Ikusten den bezala zeregina ez da falta, gogoa jarri behar diogu eta euskara teknikariok eta Euskara Batzordeak ahaleginak egingo ditugu zuzeneko langileak ere gure trenera igo eta enpresa euskalduntzen lagundu diezaguten, beraiek baitira enpresa, beraiek baitira Copreci.

5- BIBLIOGRAFIA

Liburuak:

- **ARRATIBEL, N (1999)**. *Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozalak: motibazioaren errola*. UPV/EHUko argitalpen zerbitzua. Bilbo.
- **GARDNER, R.C (1985)**. *Social Psychology and Second Language Learning. The role of Attitudes and Motivation*. London: Arnold.
- **MARTINEZ DE LUNA, I (1996)**. Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean. In *BAT*, 18, 39-52.
- **SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M., “TXEPETX” (1987)**. *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskera y teoría de las Lenguas*. San Sebastián. Elkar.

Txostenak:

- **EMUN Koop.E. (2002)** “Goizperreko euskara plana”. Barne dokumentua.
- **EMUN Koop.E. (2002-2005)** “Copreciko euskara plana”. Barne dokumentua.